

UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIA


1. FASEA: BILERA IREKIAK

A.- Santixo (hondartza, duna eta padura) eta Urolako bokalea

1. Plan Bereziaren helburuak

- Baliabide naturalak kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- Estuarioaren berezko dinamika bermatu, berreskurapena ahalbidetuz.
- Habitatak eta fauna-flora espezieak kontserbatu, eta arriskuan edo ahulenak direnak babestu.
- Uren kalitatea bermatu.
- Espezie exotiko inbaditzaileak ezabatu.
- Hiritarren presioa eta aisaialdirako erabilera arautu.

2. Plan Bereziaren eremua



Azalera osoa: 160,32 Ha.

Azalera Zumaian: 154,56 Ha (%96,4).

Azalera Zestoaan: 3,72 Ha (%2,3).

Azalera Getarian: 2,06 Ha (%1,3).

3. Santixo eta Urolaren bokalearen eremua



Azalera: 30,26 Ha (Plan Bereziaren %18,9)

Azalera Zumaian: 28,20 Ha.


Azalera Getarian: 2,06 Ha.

4. Udalaz gaindiko plangintza eta esparru juridikoa

- Itsas-lehorreko Jabari Publikoa eta babeseko zorgunea: Santixo eta Urolaren bokalea
Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren¹ baitan geratzen dira ia bere osotasunean. Jabari honetatik kanpo lurzati estu batzuk besterik ez dira geratzen, zeinak itsas-lehorreko

¹ Gaztelaniaz Dominio Público Marítimo Terrestre.

Jabari Publikoaren babeseko zorgunearen² arauen menpe dauden (Kosten Legeak ezarritakoaren arabera).




- Errepideen babeseko zorgunea: N-634 errepideari dagoikon Jabari Publikoak 8 metroko zabalera du errepidearen alde banatan eta babes eremuak berriz 50 metroko zabalera alde banatan.
- LAA, LZP, LAP³ (Hezeguneen LAP, Itsasertzeko LAP): lurraldearen antolaketako tresna hauek denek Santixoko duna eta padurak babesteko proposamena jasotzen dute.

² Gaztelaniaz Servidumbre de Protección.

³ Lurrealdearen Antolaketarako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

- Natura 2000 Sarea. 'Urola Itsasadarra' Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE). Europa mailan babesa behar duten naturguneen sarea da, 1992ko 'Habitat' Europear Zuzentarauaren bidez martxan jarri dena. 2010ko abenduan hasierako onarpena lortu zuen eremu honen 'Kudeaketa planak' 2003 urtean eremu honentzako finkaturiko jatorrizko mugak zabaltzea proposatzen du. Plan Berezia egiteko aipatu proposamenean jasotako eremua hartu da oinarritzat.



5. Udal plangintza egituratzailea (Arau Subsidiarioak)

- Getariako zatia: Ekipamendu komunitarioko Sistema Orokorra: Santixo eta Orruako Hondartzak (G.4).
- Zumaiaiko zatia:

- Babes Berezia (D.1). Interes naturalistiko eta paisajistikoa (IN3. Santixoko hondartza eta duna). 2. Sistema Orokorra (2.S.O) Santixo.
- Hiri lurzorua. 7. Sistema Orokorra (Kaia).

6. Udal plangintzaren garapena (Onartutako Plan Berezia)

- 7. Sistema Orokorren (Kaia) Plan Berezia. Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Aeroportuen Zuzentaritzak sustatu zuen eta 1997n onartu zen.
 - A.I.8: Hezegunea (Santixoko Padura)
- 2. Sistema Orokorren (Santixo) Plan Berezia, Zumaia eta Getariako lurak hartzen dituen. Zumaiaiko Udala izan zen sustatzailea eta 2007 onartu zen.
 - A.I.2: Finkatutako duna.
 - A.I.3: Duna berreskuragarria.
 - A.I.4: Hondartza
 - A.I.5: Espaloiak eta oinezko ibilbideak

7. Santixo Hondartzaren bilakaera: dike berria eraiki zenetik, Santixoko hondartza betetzen eta Orruako hondartzaruntz aurreratzen joan da.



1981



2001



2011

8. Baliabide naturalak

- Estuarioaren uren kalitatea (Ur Agentziaren jarraipen sarea): Ona.
- Landaredi potentziala:
 - Itsasertzeko hareatzak: hondartza; duna aintzindaria; duna mugikorra-duna zuria; duna finkoa-duna grisa.
 - Estuarioa eta padurak: fondo lohitsu edo hondartsuak, itsasbeherak estaltzen ez dituenak; komunitate halofiloak; komunitate azpihalofiloak.
- Interes komunitarioko habitatak:

UE KODIGOA	Deskribapena	Azalera Plan Bereziaren eremuan (Ha)	Plan Bereziaren eremuaren %	Azalera Santixo eta bokalean	Santixo eta bokalearen eremuaren %
1130	Estuarioa	35,18	% 21,94	10,77	% 35,59
1140	Itsasbeheran estali gabe geratzen diren lautada lohitsu edo hareatsuak	14,82	% 9,24	4,03	% 13,32
1210	Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den urteroko landaredia	0,29	% 0,18	0,29	% 0,96
1320	Spartina-zelaiak	1,54	% 0,96	0,21	% 0,69
1420+1330	Padurako sastrakadi halofiloen eta larre gazi atlantiarren mosaikoa.	2,26	% 1,41	1,31	% 4,33
2110	Duna mugikor aintzindariak (duna zuriak)	2,70	% 1,68	2,70	% 8,92
2130*	Kostako duna finkatuak, landaredi belarkarekin (duna grisak)	4,61	% 2,88	4,61	% 15,23
4040*	Itsasertzeko txilardi lehor atlantikoak (<i>Erica vagans</i>)	0,096	% 0,06	0,096	% 0,32

1420 habitataren kasuan izan ezik, gainerako habitaten kontserbazio egoera 'desegokia' edo, kasu gehienetan, 'ezkorra' da 'Urolako Itsasadarra' KBEn.



- Flora:
 - Santixo hareatza florari dagokionez Euskal kostaldeko aberatsenetako bat da, 136 espezie identifikatu direlarik. Katalogatutako espezieen artean *Koeleria albencens* eta *Honkenya peploides* Santixon agertu dira, baita ekologia aldetik interes handikoak diren eta EAEn banaketa-eremu mugatua duten beste hamarren bat espezie gehiago ere. Horien artean *Silene nicaeensis* espeziea, Santixoko dunen sisteman agertua, eta kantauri kostalde osoan Zumaian bakarrik ezagutzen dena.
 - Azpirramagarria da ere Santixoko paduretan ere *Limonium humile* espeziea dagoela, berau espezie honek EAEn dituen bi populazio bakarretako bat izanik (bestea Iñurritzan dago); dena den bere kopurua murriztu egin da 2001 urtetik hona.
- Fauna:
 - Santixoko padurek Iberiar penintsulako ipar kostaldeko migrazioan dauden hegazti limikolen dentsitate handienetakoa azaltzen dute. Hegazti hauek ingurune hau bereziki elikatzeko eta atsedenerako erabiltzen dute. Padura hauetan Hegaztien Europar Zuzentarauaren I. Eranskinean jasota dauen 14 espezie azaltzen dira gutxienez, eta 60 espezieetik gora aldizka eremuan azaldu dira azken 10 urteetan.
 - Urolako estuarioan euskal itsasadarretan aipamen bakanak dituzten espezieak ageri dira, hala nola zarbo nanoa eta itsas-amuarraina. Santixoko paduretan estuariotakoak berezkoak diren espezieak (aingira, lupia, zarboa eta zarbo beltza), itsasertzeko ur ez oso salonetako espezieekin (arrain zapalak, barbarinak, perloi edo arraingorria, muxar handiak, eiherazainak) nahasturik azaltzen dira. Urolaren itsasadarrean egindako azkeneko laginketetak honako arrain espezieak identifikatu dira: hareatzetako zarboa, platuxak, muxarra, zarbo beltza, mihi-arraina, lupia; baita espezie migratzailea den aingira ere.
- Fungi erreinua: Santixoko dunen sistema interes handiko eremua da espezie mikologikoentzat. Horien artean azpimarratzekoak dira: *Tolustoma brumale*, *Lepiota brunneolilacea*, *Peziza boltonii*, *Suillus mediterraneensis*, Gipuzkoan arraroak direnak.
- Espezie exotiko eta inbaditzaileak: Santixo landare exotikoengatik eragin handienetarikoa jasaten duen hareatza da, bertan 23 espezie exotiko aipatzen direlarik, horietako batzuk inbaditzaileak. Azpimarratzekoa da *Yucca gloriosa* espeziearen hedapena Santixoko duna finkoan, *Arundo donax* (kanabera) sarbideko pistan edo *Spartina alterniflora* paduretan.

9. Erabiltzaileak

- Jarduera ekonomikoak: Balenziaga ontziola, bisita gidatuak ontzian edo oinez (Begi-bistan, Itsas Begi, Algorri...), ostalaritza (hondartzako taberna).

- Aisialdia: Hondartza, oinezko paseoak, nabigazioa (Kirol portua), arrantza (Arbustain Motor Elkarte, Anade Elkarte, banakakoak), bainua (Arranplan), itsas-motorrak, uretako eskiak eta abar.
- Kirola: korrikalariak (Triatloi taldea, banakakoak), piraguiak (Itxas Gain Kirol Elkarte), arraunlariak (Aita Mari Arraun Elkarte).
- Kultura: Industria-ondarearen informazio zentroa (ZIIZ), artisau-ontziola (Beduaola), ikerketa eta dibulgazioa (Itsas Enara Ornitologi Elkarte, Aranzadi Zientzia Elkarte, Zumaia Natur Taldea).
- Zerbitzuak: Moilaberri eta Santixo arteko txalupak.

10. Eremu andeatuak eta aurreikusitako arazoak

- (1) Santixoko hondartzako hegoaldeko sarbidea, gaur egun dagoen sarbide bakarra, erabiltzen duten motordun ibilgailuen eraginez dunetako eremu batzuk andeatuak azaltzen dira.
- (2) Dike berriaren inguruak, obrak egiterakoan berreskurapena bukatu gabe utzi zuten eta eremu batzuek itxura kaxkarra eta desegokia azaltzen dute (zuloak barne).
- (3) Hondartzako taberna eta jolas-parkea dunaren esparruaren barnean geratu dira, bere bilakaera naturala oztopatuz, eta baita gaur egungo hondartzatik urrun, hareatzaren beraren bilakaeraren erruz.
- (4) Hondartzako hegoaldeko sarbidearen pista eusten duen harri-lubeta bere horretan mantentzen da gaur egun, nahiz eta Kaiaren Plan Bereziak sarbide hau behin-behinekoa izango zela eta kirol-portua eraikitzean sarbide hau kendu egingo zela ezartzen zuen. Hortaz, beharrezkoa da hausnarketa bat egitea hondartzako zerbitzuentzako beste sarbide bat eraikitzeko beharrari buruz, zeina Santixoko (2-SO) Plan Berezian onartu zen eta Zuloagako finkaren iparraldean kokatzen den.
- (5) Duna finko-duna grisean paseo edo kirolerako edota motordun ibilgailuek (hondartzako zerbitzuak, partikularrak) erabilitako bidexken inguruan dauden zapaldutako zonak.
- (6) Espezie exotiko eta inbaditzaileen zabalpena.
- (7) Hondartzaren eta bertako zerbitzutarako ekipamenduen (taberna, komuna) saneamendua.
- (8) Paisaia integratu gabeko elementuak, hala nola kirol kaiaren iparekialdeko paretak eta harri-lubetak, inguruaren kalitate handiko ikuspegia desitxuratzen dutenak.
- (9) Zubi ondoko partzela, eskuineko ertzean, hondakinak (motor zaharrak), bertan behera utzitako amarraleku eta ontziak eta zainketa ezaren ondorioz utzia eta itxura ezegokia ematen duena.



11. Natura eta giza paisaia

- Santixoko padurak eta hondartzak kalitate handiko paisaia osatzen dute, bere osagai naturalen uztarketari esker, nahiz eta jatorrizko estuarioaren azaleraren %43 galdu den, eta elementu batzuek ikuspegia desitxuratzen duten. Ikusgarritasun handikoa, errepidetik, oinezkoentzako bideetatik (Santiago Bidea besteaz beste), hirigunetik, baita Artadiko muinoetatik.
- Santixo eta Urola bokaleko eremuaren mugak ikuspegi naturalistiko batetik ezarriak dira, tokiak duen balio ekologiko handiarengatik. Ondare kultural eta arkitektoniko aldetik eremuaren barruan elementu gutxi gelditzen badira ere, giza paisaiari dagozkion adibide eta kasuak badaude eremu honen ertzetan.
- Paisai katalogoaren zirroborroan (CPSS9) aipatzen diren *“Paisai kalitate helburuen”* artean, honako hauek aurkitzen dira:
 - Zumaiako sarreraren irudia hobetzea, N-634 errepidekoa, bertan naturak, eraikin eta urbanizazioek elkarrekin sortzen duten aurkezpen-eskena zainduaz. Modu honetan, honako helburuak aipatzen dira:
 - Errepidearen bazterrak eta hondartzaren sarbideak (oinetzko bideak eta autoentzako aparkalekuak) atondu eta egokitu.
 - Zuloaga Museoaren integrazioa, herri sarrerako eskenatokian.
 - Artadi inguruan dagoen bidegurutze zonaldearen *“egituraketa faltari irtenbidea”* ematea. Ondoko *“Guascor”* zen eraikinaren presentzia negatiboa kontutan hartzea.
- Sarrera eskenatokien arazoak eta birtuteak N-634 errepidetik identifikatzen dira.
 - Ibilgailutik:
 - Herriaren agertzea: N-634 errepidetik, oso hurbilketa polita eta pintoreskoa du Zumaiak, bidearen errebueltek behartuta herria agertu eta desagertzen baita. Herriaren silueta orekatua eta garbia erakusten da, balioestekoa dena.
 - Errepideen bazterrek, batez ere errepide zaharraren tarteez, ez dute funtzio garbirik eta gehiegizko presentzia duten antolatu gabeko aparkaleku gisa erabiltzen dira. Baretzekoa.
 - Zuloaga etxea: *“neo-vasco”* estiloan eginiko etxe multzoa, balio arkitektonikoa du, ez hainbeste etxearen monumentaltasunarengatik baizik eta eraikin multzoak berak duen interesarengatik. Zuloaga eremuko eraikinez gain, multzo hau errepideaz beste aldera dauden bi etxeek ere osatuko lukete. Balioestekoa.
 - Getariatik Zumaiarako sarreran, Zuloaga etxe multzoaren parean eta errepideaz beste aldera dauden belardiek (Karakasko ibarrakoez) oso

eskema ona osatzen dute. Indarrean dagoen nekazal paisaia errepideraino hurbiltzen da. Balioetsi eta mantendu beharrekoa.

- Ibilgailutik eta oinez:
 - Kirol portuko harri-lubetaren presentzia: hormigoizko pareta baxuagoa da eta urrutiagoa gelditzen da oinezkoen zein kotxeko bistentatik. Aldiz, aurreko zatia, harritzko lubetarena berriz, gertuago gelditzen da eta baretu beharreko presentzia handiegia du.
 - Hondartzako oinezko sarrera hobetzekoa da, eremuak duen irisgarritasun arazoa dela eta (Arau Subsidiarioek hala aurreikusten dute). Sarbide honetan, oinezkoek herritik hurbiltzean duten ikuspegi panoramikoa aprobetxatzeko da.
 - Padura paretik igarotzen den oinezko espaloia eta errepidearen artean dagoen setoa oso ongi dago, oinezkoa errepidetik erabat bereizteaz gain, oinezkoa paduraren ikuspegian murgil arazten du eta herri aldetik autoen presentzia baretu. Padura eta Zuloaga eremua banatzen dituen pista, presentzia handiegia duen harri-lubeta bat du padura aldera: hau ez da batere lagungarria zonalde horren naturaltasuna irudikatzeko.
 - Artadiko bidegurutzearen aurreko zelaia eta gune degradatua (ingelesez, “wastedland” hitz famatuak ederki deskribatzen du gune hau). Gune honetatik ere, Guascor eraikinaren presentzia itzela da, aldatu eta baretzekoa.
 - Zubi berriaren ondoan, lorategi gune berde bat geratzen da, txukun eta egokia izan arren, artadia eta ibaiaren ikuspegiari mesede handiegirik egiten ez diena.
 - Zubi berria: babestuko den itsasadar aldera ematen diren bistak zaintzekoak lirateke. Zubi oinez edota autoz igarotzen dela, ibaiaren eta artadiaren perspektiba luze eta erakargarria sortzen da, zaindu, hobetu eta goraipatu beharko litzatekena.
 - Hondartzatik bertatik, itsaso alderako ikuspegia oso sinbolikoa eta ikonografikoa da, zaindu eta etekina ateratzeko.
 - Hondartzari buruzko hausnarketa: herritik urrutiratzen ari da poliki-poliki eta honek etorkizunean ekarriko duen egoera berria aurreikusteko beharra dago. Erdialdean geratuko den hareatzetako tarte handiarekin zer gertatuko da? Zer gertatuko da irisgarritasunarekin?